

Umeentzako nobedadeak



ZERTARA DATOZ MARTETARRAK?

IÑAKI ZUBELDIA

● **Ibaizabal.** Martetarrak 1969an etorri ziren lehenengo aldiz Zarautzera, Gipuzkoako kostaldera. Orain, 2019an, 50. urteurrena ospatu nahi dute, 10.000 martetar txiki 500 espazio-ontzitan ekarriz eta Zarauzko etxeetan ostatu hartuz. Horrez gain, beste lau ama-ontzi erraldoi ekarriko dituzte, Zarautz munduko hiriburu bihurtuz. Ontzi erraldoi horietako batean bilduko dira Nazio Batuen Erakundeko (NBE) estatuetako buruak martetarrekin betiko Bake-ltuna sinatzeko. Ikaztegietan jaiotako Iñaki Zubeldiaren liburua –Filosofian lizentziatua da Hizkuntzaren Pedagogia deituriko espezialitatean–, Alai Zubimendi da liburuaren ilustratzailea.



MAGALI EZ DAGO BAKARRIK

JOHN ANDUEZA

● **Elkar.** Gazteen artean, emakumeen kontrako sexu-erasoak gaitzat hartuta, Andueza gazte literaturaren unibertso-ra hurbildu da berriro. Oraingo honetan, istorio frenetiko batekin dator, irakurlea lehenengo lerrotik harrapatuko duena. Tamalez, gaur egungo gizartean, puri-purian dagoen gaia jorratu du: emakumeen kontrako sexu-erasoen plaga. Egun zailak bizitzen ari dira Bergarako institutuan, egun ilunak, egun korapilatsuak. Duela hamabost egun, bertako bi ikasle gertakari tamalgarri batean nahastu ziren, biolentzia irrazionalaren atzapar zikinetan murgilduz. Geroztik, giroa endredatu samar dago. Hain da mingarria biolentzia. Batez ere, neska-mutil gazteak kolpatzen dituenean...



LO POTOLO

HAINBAT AUTORE

● **Alberdania.** Gurasoek haurrek beste gozatuko duten liburu honetan, askotarikoak dira piezak, askotarikoak diren bezala lumak eta erregistroak. Liluratik pikardiara, jolasetik gogoetara, goxotasunetik irribarrera, edo algarara... Bidaia etengabea proposatzen du "Lo potoLO" liburuak. Gelaren argiantzean, egunero afanak itzaltzearekin batera mundu magikoak itzaletatik ateratzen hasten denean, lehen-lehen mailako idazleen istorioak paregabeko bidelagun dira ametsen erresumarako bidaian. Baina ez bakarrik lotarako, edozein une da egoki eta aproposa haurrekin lehen irakurketaren gozamenen murgiltzeko, elkarrekin eta elkarri kontatuz letra eta marrazkiz osatutako historiak. Inork galtzerik ez duen bizipena baita edertasunarena.